

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2020. urtean aisialdiko begirale eta aisialdiko zuzendari izateko titulu ofizialak ikasteagatik ematen diren beken deialdia egiten duen Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 524743

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/524743>).

Lehenengoa. Onuradunak

Amurrion erroldatutako eta 2020an aisialdiko begirale eta aisialdiko zuzendari izateko titulu ofiziala ikasten amaitu eta lortu duten pertsonak.

Bigarrena. Helburua

Deialdi honen helburua da Amurrioko biztanleek aisialdiko begirale eta aisialdiko zuzendari izateko titulu ofiziala ikas dezatela sustatzea xede duten laguntza ekonomikoak arautzea, norgehiagokako erregimenean.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Aurrekontu-gauzatzearen Udal-arauaren VII. kapituluaren jasotako dirulaguntzen oinarri arautzaileak 2020ko ekainaren 19ko ALHAOn argitaratu ziren (33. oinarria). Aisialdiko begirale eta aisialdiko zuzendari titulu ofizialak ikasteagatik bekak emateko oinarriak arautzen dituen araua.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako diru-hornidura 2.050 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

2020ko urriaren 1etik 31ra.

Amurrion, 2020ko irailaren 22an

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA